


Euskal AEko Merkataritzako salmentak %0,7 igo dira eta Beste Zerbitzuenak %0,8 2019ko hirugarren hiruhilekoan

Urteko metatuan, Merkataritzaren salmentak %1,5 gehitu ziren, eta Beste Zerbitzuenak %0,5

Merkataritza (handizkakoa, txikizkakoa, ibilgailuen salmenta eta konponketa) %0,7 gehitu zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan; Beste Zerbitzuak, %0,8. Hori dena, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetan, Eustaten datuen arabera.



Beste Zerbitzuen atalean, Ostalaritza adarra izan zen hazkundearen buru, prezio finkoetan %3,2ko igoerarekin; ondoren, Informazioa eta komunikazioak adarra (%3,0ko hazkundearekin), Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoaren adarra (%2,2koarekin) eta Garraioa eta biltegiatzea (%0,1ekoarekin). Aldiz, Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrien adarra %5,1 jaitsi zen.

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaera positiboa izan da Txikizkako merkataritzan (%2,1eko igoera) eta Handizkako merkataritzan (%0,6koa); hala ere, Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren adarreko salmentak %4,5 jaitsi ziren.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, Merkataritzak errepikatu du berea (%0,0) eta Beste Zerbitzuetan %0,4ko gehikuntza izan da, urtaro-eraginak kenduta eta prezio finkoetan.

Lurraldeen arabera, Merkataritzaren sektoreak bilakaera positiboa izan du, termino errealean, Gipuzkoan (%1,7ko hazkundea) eta Bizkaian (%0,4koa); Araban, berriz, %0,6 egin du behera. Beste Zerbitzuetan, termino errealean, bilakaera positiboa izan da hirugarren hiruilekoan Araban, %2,8ko hazkundearekin, eta Gipuzkoan, %2,7ko igoerarekin, baina Bizkaian, ordea, %0,8ko jaitsiera izan da. Betiere 2018ko hirugarren hiruilekoaren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Urteko lehen bederatzi hilabeteetako metatutan, prezio finkoetan, Merkataritzaren sektoreak %1,5eko hazkundea izan du. Handizkako merkataritza da hartan nabarmentzen, %2,5eko hazkundearekin. Beste Zerbitzuek, berriz, %0,5ko hazkundea izan dute oro har, Garraioa eta biltegiatzea delakoak gidatuta, zeinek izan duen %1,9ko hazkunde metatua aurtan.

Euskal AEko langile okupatuen indizeak gora egin du, urte artean, %1,1 Merkataritzan eta %0,2 Beste Zerbitzuetan.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). III/2019

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
Merkataritza	0,7	0,0	1,5
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-4,5	0,1	-3,5
Handizkako merkataritza	0,6	-0,2	2,5
Txikizkako merkataritza	2,1	0,6	1,6
Bestelako zerbitzuak	0,8	0,4	0,5
Garraioa eta biltegiatzea	0,1	-3,3	1,9
Ostalaritza	3,2	0,9	1,7
Informazioa eta komunikazioak	3,0	1,9	-1,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	2,2	1,6	1,6
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-5,1	-1,1	-4,4
Araba			
Merkataritza	-0,6	-0,5	1,9
Bestelako zerbitzuak	2,8	2,4	0,6
Bizkaia			
Merkataritza	0,4	-0,1	1,3
Bestelako zerbitzuak	-0,8	-0,1	-0,4
Gipuzkoa			
Merkataritza	1,7	0,5	1,6
Bestelako zerbitzuak	2,7	0,6	2,3
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE			
Merkataritza	1,1	0,3	1,1
Bestelako zerbitzuak	0,2	0,5	-0,8

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62